



Naturpolis jolasa

Lohiker maltzurra garaitzeko heroi bila

Gugandik urruti, milioika eta milioika kilometrotara, Lurrak planeta biki bat du: Naturpolis. Naturpolisen gertatzen denak zuzenean eragiten dio Lurrari eta planeta hura arriskuan dago orain. Naturpolis, eta ondorioz Lurra, Lohiker maltzuraren eskuetatik salbatuko duen heroiia izan nahi?

MIKEL GARCIA

MODU DIBERTIGARRIAN gazteek ingurumena zaintzeko kontzientzia barneratu dezaten, ARGIA JOLASAK-ek joko berria prest du dagoeneko: Naturpolis mahai jolasa. Naturpolis planeta, Lurra jaio zen une berean sortu zen, unibertsoaren beste muturrean. Bi planetak bikiak dira eta batean gertatzen denak besteari eragiten dio. Horregatik, gizakion erruz handituz doan kutsadurak izaki ilun eta maltzurra sorrarazi du Naturpolisen: Lohiker. Lohiker gaintitza lortzen ez badugu, etorkizun beltza izango dute bai Naturpolisek eta bai Lurrak, eta beharrezkoa da etsaiarekin akabatzea. Argazkietan ikus ditzakezuen lau heroietakoa bat aukeratu eta Lohiker gaintitu arte aurrera egitea izango da irtenbidea.

Naturpolisen bertan jokatu da lehia gogorra. Lohiker agertu arte behintzat, planeta ederra zen Naturpolis, lau mundutan banatua. Suaren Munduan sumendi ikusgarriak eta laba

ibaiak dira nagusi, eta berotasunak emandako energia hori aprobetxatuz bizi dira bertako biztanleak. Uraren Munduan, itsaso eta ibaiak zabaltzen dira paisaia eta arrantzarekin eta olatuek eragindako energia hidraulikoarekin ongi bizitzeko aski dute bizilagunek. Airearen Mundua

berriz, hegazti ederrez betea dago, eta bertako biztanleek haizearen energia naturala erabiltzen dute, zepelinean edota globoan ibiltzeko. Azkenik, Lurraren Mundua ere bada Naturpolisen eta bere soro emankorrak atseginez eskertzen dituzte bertakoek.

Baina azkenaldian natura ez da hain garbia, eta errekurto natural horiek denak arriskuan daude: Lohikerrek ibai eta zelaiak kutsatu ditu, airea ke pozoitsu bezalako betetzen ari da, suteak eragin ditu, inguru guztia kiskaliz... Planeta salbatzeko garaia iritsi da.

Garaipena, urratsez urrats

Ludi pertsonaia jatorrak modu dibertigarrian azaltzen du, jokoak daramatzen argibideetan, Lohiker garaitzeko eman behar diren urratsak. Hasteko, lau munduetako bat hautatu eta bertatik abiatu da jokalaria. Bidean aurrera egiteko, galdera-txartelak zuzen erantzun beharko ditu, eta mundu bakoitzak bere txartel sorta dauka, suari, urari, aireari eta lurrari buruzko galderekin. Zenbatekoa da eguzkiaren gainazaleko tenperaturatura? Zein da hilabeterik euritsuena Euskal Herrian? Zein talderena da *Haizea* abestia? Zein mendiren maga-



lean ospatzen da iraileko igandeetan erronomia alai? Horrelako galderak prestatu ditu, jolaserako propio, Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak, baina zailak iruditu bazaizkizu lasai, hiru erantzun posible eskaintzen baititu txartel bakoitzak, eta horien artean egokia dena asmatu behar da.

Beste batzuetan, Ludi agertzen den laukitxoetan erori gaitetzke, laukitxo berezietan alegia. Halakoetan, luditxartel bat hartu eta honek dioena egin beharko du jokalaria. Batzuetan ona izango da txartela –“Mendian zinela, kristalezko hondakinak aurkitu eta jaso egin dituzu suteak eragozteko. Su puntu bat lortu duzu. Bota dadoa”–, eta besteetan ez hain ona –“Amaren zain zaudela autoko bozina jo duzu. Bozina soinuak zarata sortzen du eta hori ere kutsadura da. Ondorioz, Aire Puntu bat galdu duzu eta baita txanda ere”–.

Halaber, mundu batetik bestera igaro ahal izateko zubiak aurkituko ditugu bidean, ibilbidea nahi dugun moduan antolatzen. Finean, mundu bakoitzeko hiru puntu lortzea izango

- ✓ **Jolasa:** Naturpolis
- ✓ **Adina:** 8 urtetik gora.
- ✓ **Edukia:**
200 txartel galdera-erantzunekin
80 txartel berezi
16 egurrezko peoi
4 heroiak
Dadoa
- ✓ **Prezioa:** 27 euro. ARGIAren harpidedunentzat %15eko deskontua.
- ✓ **Eskaerak:** 943 37 15 45; denda@argia.com, www.argia.com/naturpolis-jolasa

da gure helburua. Behin hamabi puntu horiek eskuratuta, Lohikerren aurka lehiatuko gara eta berau gainditzea izango da erronka, joko irabazteko eta gure planeta bikiak kutsaduraren eta zaborraren esku zikinetatik salbatzeko.

Ikasleentzako lehia irekia

Bestalde, Naturpolis mahai jolasa ezagutzen joateko, gazteentzako lehiaketa antolatu du ARGIA JOLASAK-ek. *Lohiker garaitzeko zure plana* izenburupean, Lohikerri eta beraz kutsadurari eta zaborrari aurre egiteko zer egingo zenukeen azaltzea da lehiaketaren muina. LHko 3. maila eta DBHko 2. maila artean dauden ikasleek har dezakete parte eta lanen teknika librea izango da: ipuina, marrazkia, argazkia, komikia, eskultura... Bakoitzak nahi duena. Gainera, irabazleak eta bere ikastetxeak sari ederra jasoko dute –informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 37 15 45 telefono zenbakira–. Beraz, animatu eta ekin pentsatzeari: zer egingo zenuke Lohiker garaitzeko? ■

